

# Euskararen plangintza

## Mahainguru hartan erantzun gabeko itaunak (IV)

Hurrengo itaungilea prest dago, adierazten digutenez. Berari utziko diegu hitza. Gabon.

Gabon guztioi. Hasteko, eskerrik asko Amatiñori, horrelako gai garrantziko bat mahaingurura eraman duelako. Ez dut uste inolako zalantzarik eduki behar denik, euskararen inguruko arazoak demon artean mahai gainean edo mahai inguruan ipintzeko eta eztabaidatzeko. Euskal Telebistaren eginkizunetako da hori ere. Ala ez da euskararen berreskurapena Herri honen arazorik funtsezkoena?

—Bai, eskerrik asko zuri ere; baina galderaren zain gaude. Egin ezazu zeure itauna.

—Berehala etorriko da nere galdera, baina zerbait erantsi nahi diot

—Nork erantzungo du?

—Nahi baldin baduzue, nik neuk esan dezaket zerbait.

Itaungileak esan duena berresiz —eta hasteko, berak esan duen bezala—, nik neuk ere aitortu behar dut, honelako eztabaidak egokiak eta beharrezkoak direla Euskal Telebistan, eritzi ezberdinak aurrez aurre ipintzeko. Adierazi dituen garrantzitasunei eta deskalkifikazioi buruz, berriaz, norik bere burua aitzertu beharko du, eta ikusi zertarako balio duten eskuartearen dugun arazoa konponbideratzeko.

Baina goazen, ikusentzulearen itaunari heltzera. Hizkuntz plangintza eta hizkuntz politika sinimoak dira. Horregatik euskararen normalkuntzarako politika euskal politika osoarekin dago lotuta. (Bada, bai, hizkuntz politikarik, plangintzari ezean oinarritua; baina alde batera utziko dugu oraingoz politika «liberal» omen den hori). Euskararen normalkuntzarako ipintzen diren helburuak eta helbideak ezin daitezke lagun edo talde bakoitzaren taktika eta estrategia politikokoatiki erabat bereiz. Euskararen normalkuntzarako plangintza lotuagoa doa, oraindik, talde edo erakunde bakoitzaren kultur filosofiarekin eta politikarekin. Horregatik idealismo hutsa dela uste dut, euskararen aldeko borroka, lanbide eta politika erabat «apolitikoak» defenditzea. Arazo politikoa da funts-funtsean euskararen normalkuntza eta horren berreskurapena. Eta beraz, kontrako politikak, politika txarrak, politika eskasak eta politika onak egon daitezke helburu horiek lortzeko. Bakoitzak aukeratu behar du, bere ideologiaren eta aukera politikoko orokorraren arabera: baina beti ere lortu nahi diren helburuak argi zehaztu eta erakutsi ondoren.

Baina badira Herriaren bizitzan, taktika sektorialak, ideologia mugatuak eta politika partidistak gaintzen dituzten gaiak: alderdi politikoen arteko konfrontazio taktiko-estrategikoetan kabitzen ez direnak. Horietako da *euskara*, gutxienez beren buruak abertzaleztat jotzen dituzten alderdietan.

Horientzat arazo nazionala da euskararena, eta ez sektoriala: hala aitortzen dute guztiak, hitzez behintzat. Hori berreskuratzeko eta normaltzeko planak eta programak ezberdinak izango badira ere, alderdi politikoko batek bestera, abiaburu, helburu eta helbide nagusi batzuetan batasuna eta funtsezko erabakietan jokabide baterakoa eramatea bidezkoa ezetik, denei Herriak berak eskatu behar dien gauza da. Eguneroko joko politikoen barruan, bere dinamika berezia behar du euskarak gaurko Euskal Herrian.


Joko politikoko horretan ezaguna

da alderdien jokabide arrunta, bata bestearengandik bereiztera eramatean dituen: Herriaren eta beren hautesleen aurrean bereizkuntza eta konfrontazioak bilatu behar izaten dituzte. Azkenean zer da alderdien arteko politika, interes partidisten arteko oreka bilatzea besterik? Euskal Herriak berea duelako euskara, hizkuntz politikan horrelako dinamika gaintzea eskatzeko eskubidea dauka: alderdi guztiei, eta bereziki abertzaleztat agertzen direnei.

Eta herria esaten dut, eta ez alderdien bozkatzailak. Izan ere, botoak banandu dezakeen herria, hizkuntza nazionalaren defentsak batu egiten bait du. Horregatik askozaz errazago biltzen eta elkartzten da herria, euskararen aldeko defentsarako eta berreskurapenerako ekintzetan, lanbidean eta erakundetan, parlamentua baino. Horixe da, hain zuzen, beste arazoietako bat, euskararen normalkuntzarako plangintzan herriari protagonismoa ezagutzeko eta aitortzeko.

Guzti hori horrela baldin bada, ez dago onartzerik, beste-rik gabe, mahainguru honetan

lehen esandakoari. Hitz garratzak aditu dira hor: Euskararen aldeko militantzia galdu dela; euskararen aldeko borroka taldekarian eta alderdikarian erori dela; euskararen eskakizuna bestelako helburu politikoen menpe ipintzen dela; euskararen inguruan ere etena dagoela, itxuraz horren normalkuntzaren alde gabiltzanon artean ere... Deskalkifikazio gordinak ere bota dira: azterketa soziologikoen aurka, euskararen aldeko mobilizazioen kontra, euskararen berreskurapenerako lanean diharduen zenbait erakunderen aurka. Zer uste duzue orduan: Euskararen normalkuntzarako plangintzak ba al du zenikusirik euskal politika osoarekin? Benetan uste duzue gure Herrian ez dagoela indar sozial ezberdinen artean batasun moduko bat lortzerik, euskararen berreskurapenerako?



Ricardo Cataniaren ilustrazioa.

esan den zerbait: etena egina eta leizea irekita daudela, eta ez dagoela konponbiderik euskararen normalkuntzarako eta berreskurapenerako bidean. Alderdien arteko eten eta leize ideologiko, politiko eta taktikoak herriari egozte da hori, euskarari dago-kionez ere. Eta hori ez da egia; eta egia ere apurrik baldin badu, taldetu beharrekoa da, ea ez ote den alderdiek beren bezeriari janari horixe ematen ahalgintzen diren neurrian bakarrik. Ezaguna

da, bai, alderdi politikoei, beren «ezagarrak» eta beren bezeria zaintzeko murtatzen dituzten gaztelu ideologiko-politikoaren barrura hizkuntza —euskara— ere sartu nahi izaten duela, eta beren arteko borroka herriari egotzi. Joko horretatik etorri ohi dira elkarren kontrako deskalkifikazioak... Zergatik gertatzen dira hemengo alderdien artean hain iraingarri eta mingarriak nonbait euskararen inguruan egiten diren salakuntza eta «deskalkifika-

zioak», beste alorretan horrelakorik gertatzen ez den bitartean? Neretzat argi dago: denek sentitzen dutelako funtsean, euskara ez dela politikako gai sektoriala.

Hizkuntzaren inguruko joko partidista horretan erori ohi da oso errazki Herri honetan agintean dagoen alderdia ere: Komunitate Autonomoan, esan nahi dugu. Herri-erakundeengandik horren euskararekiko politikari egindako kritika konkretuak ere deskalkifikazio globaltzat hartzen ditu sarritan, eta politika globala kritikatzeko zaionean, etendura eta konfrontazio erabatekoetat hartu ohi du maiz, beraren eginkizuna eta erantzunkizuna ukatuko bait liran. Jokoa, ordea, dialektikoa da, administrazio publikoaren eta herriaren artean, bereziki euskararen normalkuntzari dagokionez.


Zein da, beraz, topaguna, euskararen berreskurapenerako indar sozialen arteko batasuna lortzeko? Funtsean herria bera da, euskalgintzan eta euskal kulturagintzan diharduten bere erakunde herritarrekin. Horretarako, jakina, herriaren autoeraketa beharrezkoa da. Bigarren mailan bakarrik izango da alderdien arteko akordioa, eskutzen den topaguna hori eratzeke bidea.

Aurren-aurren bultzatu eta zaindu behar dena, herriaren beraren jaberazpena, organizazioa eta koordinazioa da, euskararen aldeko erresistentziarako mugimendu baterakoa gerta dadin; horren defentsarako eta berreskurapenerako plataforma egokia.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

## Liburu berriak Elhuyar-ek

### KONPUTAGAILUAREN OINARRIZKO EGITURA



IÑAKI ALEGRIA

ELHUYAR INFORMATIKA-TALDEA

udako euskal unibertsitatea

Ikasturte berria bere lehenengo urratsetan dagoen uda bukaerako egun haueetan testu-liburugintzako nobedadeak kalderatu ohi dira. Gure eskoluetan erabiliko dituzten testu-liburu berriak aurkezteko bolada izaten da hau. Donostiako Elhuyar Zientzi Elkarteak, azken urteotan ohitura duen legez, bere azken produkzio plazaratu berri du: hiru liburu guztiz berriak eta birmoldatutako berrargitaralpen bat.

Liburuetako bik Fisika dute ardatzat eta BBB-ko ikasleei zuzenduta daude. «Fisika BBB2» eta «Fisika BBB3» dira hauek. Bi liburu hauek Elhuyar taldeak joan den urtean irakas-kuntz ertainetarako testuen eraberritze eta eguneratzearen (gogora, «Murgil gaitzen kimikan BBB2» eta «Matematika BBB1») hirugarren eta laugarren fruituak. BBB2 eta 3-rako Elhuyarrek zituen testu zaharrak gaintzen egiten dituzte bi testu berri hauek; ez itxuraz bakarrik, —txalogarria da azken urte hauean euskarazko testu-liburuetan arlo honetaz egiten den esfortza—, baizik eta mamiz ere. «Murgil gaitzen kimikan -BBB2» liburuan hasitako bideari jarraitu zatzaizkio eta ikasleek ikasi beharreko testuetatik at, irakurgai osagarri, laborategi-praktikaz eta ariketa ugaziz hornituta daude. «Fisika BBB2» delakoan Periko Alkain,

Koldo Aramendi, Iñaki Azkune eta Mikel Martínez irakasleak ditugu egileak; «Fisika BBB3» izenekoan, Iñaki Azkune, Iñaki Irazabalbeitia eta Mikel Martínez.

Hasieran, aipatzen genuen hirugarren nobedadea unibertsitat mailako testu-liburuen arloan datorkigu, Iñaki Alegria Donostiako Informatika-Fakultateko eta UEUko irakaslearen eskutik. «Konputagailuaren oinarrizko egitura» izeneko lan mardul hau «Informatika I» izeneko ikasgaiari ikasi behar duten ikasleentzako zuzenduta dago. Donostiako Aurrezki-Kutxaren laguntzak bestalde, egin du posible Elhuyar eta UEU-ren arteko lankidetzan burututako testu bikain hau kalera-etea.

Azkenik, Lanbide Heziketako ikasleei zuzendutako «Mekano-grafi eskuliburu» daukagu. Berrargitalpena izanik ere bi nobedade baditu. Mamiaren aldetik, kopiaketarako testuak aldatu dira eta testu berriak bi usulan idazle ospetsuenetakoan lanetan zatiekin osatuta daude. Ezin uka aberastasuna hartzen duela honekin liburuak. Itxuraren aldetik liburuaren tamaina txikitzen egin da eta maneia-riago izan arren enkoaderazio berezia eman zaio: alambre kiribilez enkoadermatuta dago.

Iñaki FERNÁNDEZ-BERASIARTU